

# IKASTETXEAREN ISEK KALKULATZEKO GALDE-SORTA

## 2025/2026 ikasturtea

1. SARRERA .....	1
2. DATAK .....	1
3. IKASLEENTZAKO GAKOAK DESKARGATZEA ETA BANATZEA .....	2
3.1 Deskarga .....	2
3.2 Banaketa .....	3
3.3 ISEC galdetegirako erabiltzaileak eta pasahitzak deskargatzeko arazoak .....	3
4. PROBA-SAIOA .....	4
5. BEHIN BETIKO BETETZEA .....	5

## 1. SARRERA

25-26 Ebaluazio Diagnostikoan ikastetxeek egin behar duten lehen jarduera honek helburu du ikastetxeko ISEK indizea kalkulatzeko. Jakina denez, indize horrek PISA azterketan, besteak beste, aldagai berak hartzen ditu kontuan, eta Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzak testuinguruan jartzeko erabiltzen da, ebaluatutako konpetentzia bakoitzeko puntuazio estimatuaren bidez.

Indize hori kalkulatzeko, **LHko 4. mailako eta DBHko 2. MAILAKO IKASLE GUZTIEK bete behar dute ISEK galde-sorta, 25-26 Ebaluazio Diagnostikoan salbuetsizat joko diren ikasleak barne.**

Ebaluazio diagnostikoaren emaitzak testuinguruan jartzeko ez ezik, indize hau **ikastetxeen laguntza premiak ezagutzeko ere erabiltzen da**. Informazio hori erreferentzia gisa har dezake Hezkuntza Departamentuak beste jarduera batzuetan.

Ikastetxeek lehen jarduketa honetan kontuan hartu behar duten informazioa jasotzen dugu dokumentuan. Zalantzaren bat argitzeko, idatzi Ebaluazio Atalaren [evaledu@navarra.es](mailto:evaledu@navarra.es) helbidera edo deitu haren telefono batera: **848 – 427119, 848 – 425726 eta 848 – 426798.**

## 2. DATAK

**Urtarrilaren 12tik aurrera**, ikastetxeetako zuzendariak EDUCA aplikazioaren bidez lortu ahalko dituzte ikasleek galde-sorta betetzeko erabiliko dituzten *erabiltzaile-izenak* eta *pasahitzak*. 3. atalean zehazten da nola lortu datu horiek.

Ikasleek galde-sorta betetzeko aplikazioa honako egun hauetan egonen da erabilgarri:

<b>DBHko 2. maila</b> Urtarrilaren 19tik otsailaren 13ra	<b>LHko 4. maila</b> Urtarrilaren 19tik martxoaren 6ra
---	---

5. atalean azaltzen da nola sartu galde-sortan.

### 3. IKASLEENTZAKO GAKOAK DESKARGATZEA ETA BANATZEA


#### 3.1 Deskarga

Ikasleek galde-sortara sartzeko erabili beharko dituzten gakoak **ikastetxeetako zuzendariek** deskargatuko dituzte (haiek bakarrik daude gaituta horretarako). Honela jokatu behar da:

- 1. URRATSA. Sartu EDUCA aplikazioan, zuzendari-profilaren ohiko *erabiltzaile* eta *pasahitzarekin*:

Internet bidezko tramiteetarako laguntza

- 2. URRATSA. Jarraitu IKASTETXEAREN EBALUAZIOA/EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA ibilbideari eta klikatu GALDE-SORTAREN ERABILTZAILEAK:



- 3. URRATSA. Klikatu ESPORTATU CSV pantaila honetan:

Deskargatutako dokumentuan, ikastetxean matrikulatutako ikasleen kopurua baino *erabiltzaile-izen* eta *pasahitz* gehiago egonen dira: horrela, gako gehigarrien kopuru jakin bat egonen da sortzen den edozein gorabehera konpondu ahal izateko (gakoren bat galtzen bada, etab.).


OHARRA. Gako horiek deskargatzeko erabiltzen den programaren arabera, arazoak sor daitezke prozesuan. 3.3 atalean azaltzen da nola konpondu.

### 3.2 Banaketa


Ikastetxeko zuzendariak *erabiltzaile-izenak* eta *pasahitzak* emanen dizkio LHko 4. mailako edo DBHko 2. mailako tutoreari, ikasleei **ausaz** bana diezazkien. Galde-sorta izengabea izan beharko da, eta, beraz, erabiltzaile bakoitzari ez zaizkio izena eta abizenak lotu behar.

### 3.3 ISEC galdetegirako erabiltzaileak eta pasahitzak deskargatzeko arazoak


Zenbaitetan *Libre Office*-rekin deskargatzen direnean arazoak sor daitezke. Deskargatzean, honelako leiho bat edo elkarrizketa-koadro bat sortzen da (zuen kasuan – zuzendariok – agian ez duzue **IKASTARO-TALDEA-ABIZENAK -IZENA-ERABILTZAILEA-PASAHITZA** lerroa ikusiko):



1. Goiko aldean (**Inportatu**), **Karaktere-multzoa** fitxan, baliteke **UTF8 Unicode**-ren antzeko zerbait ateratzea lehenespenez: fitxategia behar bezala deskargatzeko, “**Mendebaldekoa**” duen bat hautatu behar da.



2. Gainera, **Bereizgailuaren aukerak** fitxan, puntu eta koma bakarrik egon behar dira markatuta; bat bera ere ez:



## 4. PROBA-SAIOA

Ikastetxeko zuzendariak emandako gakoak erabiliz galde-sorta behin betiko bete aurretik, galde-sorta ezagutu eta proba moduan erabil daiteke. Edonork egin dezake (irakasleak, ikasleak, haren senide batek...), edozein unetan. Bistaratzear gain, bete ere egin daiteke: **sartutako datuak EZ dira aplikazioan gordeko**, nahiz eta BIDALI botoia sakatu (galde-sortaren amaieran azaltzen da botoia).

Proba moduan sartzeko, honela jokatu behar da:

- 1. URRATSA. Joan webgune honetara:

<http://dpto.educacion.navarra.es/eed/>

Koadro hau agertuko da:



Entrada a la encuesta / Inkestan sartzeko

Nombre de usuario / Erabiltzaile-izena


Contraseña / Pasahitza

Idioma / Hizkuntza

Castellano

Enviar / Bidali

*Idioma/Hizkuntza* menuan, galde-sorta zer hizkuntzatan bistaratu edo/eta bete nahi den hautatu behar da:



Idioma / Hizkuntza

Castellano

Castellano

Euskera

- 2. URRATSA. Galde-sortaren hizkuntza aukeratu ondoren, *erabiltzaile-izena* eta *pasahitza* sartu behar dira: proba moduan, bi kasuetan **Irati** idatzi behar da:



Entrada a la encuesta / Inkestan sartzeko

Nombre de usuario / Erabiltzaile-izena

**Irati**

Contraseña / Pasahitza

**Irati**

Idioma / Hizkuntza

Castellano

Enviar / Bidali

Ikastetxeak berak erabakiko du zer-nolako prestakuntza emanen duen galde-sorta betetzeko. Posta elektronikoaren bidez, galde-sortaren gaztelaniazko eta euskarazko bertsioak emanen zaizkie ikastetxeei *pdf* formatuan, ikasleen artean eta, haien hezkuntza-mailarako egokitzat jotzen bada, familien artean zabaltzeko.

Prestatzeko tutoretza-jarduerak egitea gomendatzen dugu, behin betiko bete aurretik, ikasleek galde-sorta, jarraibideak eta online bertsiorako sarbidea ezagut ditzaten eta edozein zalantza argitu dezaten.

## 5. BEHIN BETIKO BETETZEA

2. atalean adierazi den bezala, galde-sorta betetzeko epeak honako hauek dira:

<b>DBHko 2. maila</b> Urtarrilaren 19tik otsailaren 13ra	<b>LHko 4. maila</b> Urtarrilaren 19tik martxoaren 6ra
---	---

Epetik kanpo sartzen diren galde-sortak ez dira kontuan hartuko ikastetxeko ISEKa kalkulatzeko. Gomendatzen da azken egunetarako ez uztea galdera-sortak betetzea. Hori dela-eta, **HAUXE ESKATZEN DUGU: ikasle guztiak galde-sorta bete ondoren, ikastetxeak hori jakinaraz diezaion Ebaluazio Atalari, [evaedu@navarra.es](mailto:evaedu@navarra.es) helbidera idatziz, hark behar bezala erregistratu direla baieztatu dezan.**

**LHko 4. mailako edo DBHko 2. MAILAKO IKASLE GUZTIEK** bete beharko dute **galde-sorta**, alde batera utzita ikasleren bat 25-26 Ebaluazio Diagnostikoan matrikula formalizatzeko unean ebaluazio diagnostikoko probak egitetik salbuetsita dagoen ala ez.

Tutoreak antolatuko du aplikazio saioa, eta ikastetxeko ordenagailuak erabiliko ditu horretarako.

Galde-sorta betetzeko, honela jokatu behar da:

- 1. URRATSA. Joan webgune honetara:

<http://dpto.educacion.navarra.es/eed/>

Koadro hau agertuko da:

Entrada a la encuesta / Inkestan sartzeko

Nombre de usuario / Erabiltzaile-izena

Contraseña / Pasahitza

Idioma / Hizkuntza

Castellano

Enviar / Bidali

*Idioma/Hizkuntza* menuan, galde-sorta zer hizkuntzatan bete nahi den hautatu behar da:

Idioma / Hizkuntza

Castellano

Castellano

Euskera

- 2. URRATSA. Galde-sortaren hizkuntza aukeratu ondoren, **irakasle tutoreek ausaz emandako erabiltzaile-izena eta pasahitza sartu behar dira.**

OHAR GARRANTZITSUA: ikasle bakoitza **behin bakarrik** sartu ahalko da aplikazioan emandako gakoekin.

Erraz bete daiteke, are gehiago aldez aurretik prestatu bada. Honako alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

- Behar den denbora: 30 minutu, gutxi gorabehera.

- Galdera bakoitzean, ikasleak aukeren artean erantzun bakarra hautatu behar du. Ikasleak noiznahi alda dezake erantzuna.
- Galde-sortan atzera eta aurrera egin daiteke.
- Galde-sorta bukatzeko eta erantzunak gordetzeko, klik egin behar da *Bidali* botoian. Hau egitea nahitaezkoa da erantzunak gordetzeko.
- Ikasleak galderaren bat erantzun gabe utzi badu, *Bidali* botoian klik egiten duenean aplikazioak ohartaraziko du, eta ikasleak galde-sorta betetzen segitzeko aukera izanen du edo bukatutzat emanen du *Horrela bidali* botoian klik eginez.

Badira erantzun gabeko galdera batzuk.  
Amaitzeko, sakatu **Horrela bidali** botoia, edo, bestela, osatu galdera-sorta eta sakatu **Bidali** botoia

**Horrela bidali.**

- *Bidali* botoian klik egin eta galde-sorta bukatu ondoren, ezin izanen da berriz sartu galde-sortan erabilitako erabiltzaile-izenarekin eta pasahitzarekin.